gaurkoa

Txillardegi



# Ehun eta bat urte honetan zai

Mende luze bat zai Iruñean, bai. Heldu den astean, 11an zehazki, 111 urte izango dira. Jostaketan bezala: 11111.

1893ko maiatzaren 11an argitaratu baitzuen Madrileko Gaceta ofizialean Germán Gamazo ministro famatuak bere Projektu Legea.

1839an Bergarako Besarkadaz, Hego Euskal Herri osoa zazpi urtez iraundako sarraskiaren ondorioz inposatutako Unidad Constitucional delakoa, azkeneraino eramatea erabaki zuen Gamazok.

Urtebete lehenago Boecillo herrian jaiotako ministroak *(Valladolid)*, ez zuen ulertzen zergatik izan behar zuten «abantaila» fiskalik batere «vasco-navarro»ek gainerako espainiarren gainetik.

Oraingo espainiar ministroek ulertzen ez duten bezalaxe... egun hauetantxe ikusi dugunez.

Eta Nafarroa eta Vascongadak berdintzera deliberatu zen ausarki. Irakurleak ongi ezagutzen du horretarako hizkera: armonización inter-regional española.

Vascongadetako buruzagitza liberal zentralisten eskuetan zegoenez, gauzak ez ziren arrunt gaizkitu. Eta zerga-kopuruaren emendioa apaltxo izanez gero (milioi bat peseta), amore eman zuten bertako jauntxoek.

*Nafarroan, aldiz, erantzuna* bortitza izan zen.

Maiatzaren 16an (dekretua agertu eta bost egunera, *beraz) protesta* ofiziala egin zuen Iruñeko Diputazioak. Argitu beharrik ez: Diputazio hau ez zegoen liberalen eskuetan.

Bigarren karlistada 17 urte lehenago amaiturik ere, Hegoaldeko giroa ez zen batere gardena. Eta jaiak eta antzekoak suertatzean, beti ere istiluak eta protestak piztuko ote ziren kezka zegoen agintzen zutenen artean. Eta Gamazoren 17. Lege horrek beste karlistada odoltsu bat eka*rriko ote zuen beldurra* hedatu zen.

Nafarroako herri guztiguztietan berezko manifestazioak mamitu ziren Madrileren kontra. Iruñean, barne, maiatzaren 28an.

Vascongadetan ere, foruzaleek bultzaturik, antzeko giroa azkartzen ari zen.

Eta ekainaren 1an, Aiegiko Jose López Zabalegi sarjentoak (Gares-en orduan), Vivan los Fueros aldarrikatu; eta Antero Señorena eta bolondres multzo batekin, iskiluak hartu, eta mendira jo zuen.

Berri honek sekulako ikara sortu zuen Madrilen. *Eta nola-hala gizon horiek* freinatu behar zirela erabaki zuen.

Nafarroako Euskal Elkargoko kide sonatua zen Estanislao Arantzadiren bitartez egin zen saioa. Eta Jose María beronen anaiak (Badostain-en erretore) Zabalegi «odolbero» hura komentzitu; eta Baiona-raino lagundu zuen isilpean. Eta gerrilla ez zen hasi.

Baina Iruñeko Diputazioak, egoeraren larriaz ongi jabeturik, bortxagabeko bidetik jo zuen; baina ausarki. Eta egun gutxitan 120.000 sinadura bildu zituen, eta gobernadore Zibilari helerazi.

Horrez gain, ekainaren 4rako, goizeko 11etan, deialdia egin zuen. Jendetza gaitza, Gernikako Arbola kantari, Iruñeko kaleetan barrena manifestatu zen zenbait orduz.

Uztailaren 22an Arturo Kanpion idazle eta historilaria abiatu zen Madrilera. Abiatua zen horrela Matxinada Foruzalea deroitzona.

Arana-Goiri anaiek bazeukaten honen berri. Jakina. Eta arreta osoaz jarraitzen. Baina Alderdi Jeltzalea ez zen oraindik sortua (bi urtez itxaron beharko).

*Baina Castejón-era joan* ziren bi anaiak eta beste nafartar parlamentariak agurtzera. Hantxe estrainatu zen ikurriña, hain zuzen.

Abuztuaren 16an, Gernikako jaietan, eta Iruñeko Orfeoiak kantatu behar zuela-ta, bizkaitar talde bat elkartu zen bertan. Eta istilu gaitzak gertatu ziren. Muera España oihuak entzun ziren, eta piperpotoa erre zuten plazan. Gamazadari Sanrokada jarraitu zitzaion.

Abuztuaren 20an Biasterin (Arabako Errioxan) egon ziren liskar larriak. Vivan los Fueros eta Abajo los consumos esaten zuten manifestarien kontra Guardia Civilak tiro egin, eta bi lagun hil zituen: Fernando Elkano eta Arsenio Portilla.

Are larriagoa ondoko igandean (VIII-27) Donostian gertatutakoa. Sagasta lehen ministroa Londres Hotelean zegoen ostatatuta. Ostea Gernikako Arbola kantari eta Muera Sagasta karrasika bertara hurbildu. Eta Guardia Civilak tiroka *erantzun. Hiru donostiar* hilik: Bizente Urzelai, Rufino Azpiazu eta Justo Pérez.

Urte latza bai 1893koa. Baina urte argigarria ere bai. Baita gaurko egoera argitzeko ere.

Nafartarrek Iruñean Foruen aldeko Monumentu bat eraikitzea erabaki zuten 1894ko ekainean. Projektua Manuel Ubago iruindar arkitektoak prestatu zuen; eta harria Tafallatik ekarri zuten. Eta lanak 1895ko azaroan hasi ziren. Baita 1903an amaitu ere.

Monumentua denok ezagutzen dugu. Ederra da.

5 alde ditu, 5 harmarri (Iruñea, Lizarra, Olite, Tutera, Zangoza). 5 eskai-lera. (Seigarren merindadea falta... Garazi. Bego). Eta 5 izkirio: 3 gaztelaniaz, eta 2 euskaraz. Berau, alfabeto latinoaz batean, eta alfabeto iberikoaz bestean. 5 lerrotan.

*Vasco-iberismoa modan* zegoen orduan; eta Aita Fita jakintsuak prestatu zuen.

Euskarazko izkribuak honela dio:

«Gu euskaldunok/ beste jaun eztegu Jaungoikoa baizik,/ atzekoari ostatua ematen degu onirizkero/ baino eztegu aien uz- tarria jasan./ Aditu ezazute ondo gure semeak.»

101 urte joan dira. Baina Monumentua estrainatu gabe dago. Zergatik ote? •

koma

## Demolición

Temen los socios de Ibarretxe que se esté *preparando la* demolición del pacto tripartito y, con menos votos y más talante, los de Imaz se vean *obligados* a pactar con el PSOE y transaccionar sus respectivos planes. Se huele, pues, el tufo a fraude. ¿Gritará alguien, con voz potente, ¡Adelante con los faroles!? Hace falta decisión y mucha determinación. •

**Olaso**

jo puntua

**Jon Odriozola** • Periodista



# Ajedrez: ¿Juego y/o deporte?

Cuando con 12 o 13 años iba de Barakaldo a Bilbao a ver y comer con mis abuelos paternos era inevitable, antes y después de la sobremesa, jugar varias partidas de ajedrez con mi abuelo. Algunas veces, para no menoscabar su orgullo, me dejaba ganar porque, entre gambitos, suponía que estábamos jugando y no practicando un deporte. Más tarde, en la cárcel, jugábamos ajedrez entre los camaradas y hacíamos deporte en el frontón del patio con la salvedad de que, sin olvidar donde estábamos, nadie se dejaba ganar.

No he dicho que mi abuelo tenía unos 80 años y habrá quien opine que ésa no es cifra para hacer «deporte» como también quien se admire de hacer tal cosa a tan proyecta edad. Yo, la verdad, siempre creí que estaba jugando ajedrez con mi *aitite* (y al parchís con la *amama*). Y que «jugar» al fútbol era hacer «deporte». La mente no suda y el cuerpo sí, parece ser.

Es sabido que el ajedrez (de origen oriental al igual que el parchís, por cierto) es un sucedáneo del arte de la guerra y que, si algo tiene este deporte (¿) es la agresividad característica de todos los deportes de competición.

Y es que el deporte se concibe, básicamente, como esfuerzo físico. Ahora se entera mi suegra de que lo que hace en la huerta no es trabajo, sino deporte. Ya el Barón de Coubertain entendía el deporte y la idea olímpica como una cultura muscular, caballerosa, amateur en la que lo importante no era el triunfo sino el esfuerzo (y el combate pues pensaba en jóvenes cachorros listos para guerrear). Es seguro que tendría el ajedrez como «juego» de club, de casino, de ociosos aristócratas y nuevos ricos burgueses amantes del *fair play*, y no como deporte. Y es que Coubertain no conoció la taquilla ni, en consecuencia, el profesionalismo ni mucho menos, claro está, las televisiones. Bajo el capitalismo, el deporte o es espectáculo *(tariado) –con su sobredosis* de opio– o no lo es o es otra cosa. Hace falta un público cosa que el ajedrez no tiene salvo, por razones políticas, el duelo en 1971 entre el norteamericano Fischer y el soviético Spassky o, posteriormente, entre el «disidente» ruso Korchnoi y el (todavía) soviético Karpov. Aquello, previamente publicitado, fue popular pero por razones... extradeportivas. Cuestión de prestigio como la «carrera espacial». Ni siquiera importaba si aquello era deporte, juego o mediopensionista.

En febrero de 1996 Gary Kaspárov ganó en seis partidas (4-2) al ordenador Deep Blue –un negocio de IBM con 32 procesadores–. La máquina, un año después, derrotó a Kaspárov. Ese golem mecánico, ese frankenstein gélido, no sudó por sus circuitos. Kaspárov sí y tenía que ir, además, a mear: ¿Juego y/o deporte? ¿Ambas cosas? •